

PRENTSA OHARRA: 2020.02.20

Itzultzaile frankofonoek euskara ikasi eta literatura lanak itzul ditzaten prestakuntza jasoko dute

- Itzultzaile frankofonoen prestakuntza #QCPaysBasque egitasmoaren testuinguruan kokatzen da, eta Etxepare Euskal Institutuak eta EIZIEk bideratuko dute.

-Bi itzultzaile frankofonoak hautatzeko deialdia gaur irekiko da.

Nazioarteko literatura itzultzaileak euskaraz trebatzea eta nazioarteko literatura itzultzaileen eta bertakoen arteko zubiak eraikitzea. Horixe da Itzultzaile Berriak egitasmoaren xedea. Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren programaren baitan gauzatu zen proiektu honi jarraipena emango dio Etxepare Euskal Institutuak aurren.

Ekimen honen bidez, Quebeceko, edo orokorrean, frankofoniako bi literatura itzultzaile euskara irakatsiko zaie euskal literatura sustatzeko helburuarekin.

Horretarako, gaur, otsailak 20, irekiko den deialdi publiko baten bidez bi itzultzaile frankofono hautatuko dira euskara ikas dezaten. Honakoa izango da dinamika: aurretik euskara dakien itzultzaile frankofono batek, mentoretza baten bidez ezagutza horretan sakonduko du testuak zuzenean euskaratik itzultzen trebatzeko. Bigarren itzultzaile batek, ordea, mentoretza baten bidez ezagutza horretan sakontzeaz hain, hilabeteko egonaldia egingo du Euskal Herrian uztailean. Mentore lana egiteko aditu bat izendatuko du Etxepare Euskal Institutuak, EIZIEk proposatuta.

Deialdiak ez du soilik euskara ikastea bultzatuko, baita lanak ekoiztea ere. Itzultzaile bakoitzak 30.000 karaktere inguruko bi lagin itzuliko ditu proiektuaren amaieran, beranduenez 2020ko abuztuaren 31rako. Laginak mentorearekin adostuko dituzte itzultzaileek eta euskal literaturen sustapenerako erabiliko dira.

Eskaerak aurkezteko epea gaur, otsailak 20, ireki da eta martxoaren 5an amaituko da. Dokumentazioa emailaz aurkeztu beharko da etxepare@etxepare.eus helbide elektronikoan.

Egitasmo hau Etxepare Euskal Institutuak EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin lankidetzan garatu du, eta Quebecekin 2020-2021 urteetan zehar jorratzen ari den lankidetzaren baitan kokatuko da.

#QCPaysBasque 2020-2021

Québec eta Euskadiren arteko lankidetzaren emaitzetako bat da #QCPays Basque 2020-2021 egitasmoa. Bi lurraldeetako kultur eragileen arteko lankidetzaren sustatu, artista, sortzaile eta kultur industrien hartu-emana estutu, sorkuntza eta hedapena bultzatu, esperientzia eta ezagutza trukatu, kultur erakusleihoak eratu, eta azken batean, kultur elkarrizketaren bidez loturak sendotzea du jomuga proiektuak.

#QCPaysBasque-k Quebec eta Euskadiren arteko MOU edo Elkar-Ulermenerako Memorandumean du jatorria eta Etxepare Euskal Institutuak eta Quebecoko Kultura eta Komunikazio Ministerioak bideratzen dute egitasmoa.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus